

Atxaga eta Uribe idazleak eta Athleticeko Koikili eta Gabilondo futbolariak 'letrak eta futbola' zikloan

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Athletic Club Fundazioak, Foru Liburutegiarekin batera, bigarren urtez jarraian antolatu duten 'Letrak eta futbola' izeneko zikloko bigarren mahai-inguruaren protagonistak Bernardo Atxaga eta Kirmen Uribe idazle sarituak eta Athleticeko Koikili Lertxundi eta Igor Gabilondo futbolariak izango dira. Mahai-ingurua bihar egingo da, hilak 12an (osteguna), 19:00etan, Foru Liburutegian, eta euskaraz egingo dute.

Literaturaren eta futbolaren arteko loturak elkarrekin aurkitzeko espazioa da: lehenengo hitzaldia aurreko ostegunean izan zen eta azkena, berriz, hilaren 19an izango da.

Hiru egunotan zehar, futbola narraziogintza laburreko gai eta eszenatoki gisa aztertuko dute, 'Ipuna jokaleku' tituluaren inguruan. Hizketalagun, beraz, idazleak eta futbolariak izango dira.

Mahai-inguruen zikloa abiarazteko, Jordi Puntí eta Ignacio Martínez de Pisón idazleak izan genituen, Josu Urrutia Athleticeko jokalaria ohiarekin. Zikloa burutzeko, hilaren 19an, Ray Loriga eta Andrés Neuman idazleak izango ditugu, Aitor Ociorekin batera.

Sarrera doakoa izango da saio guztietan, baina jarleku kopurua mugatua da.

Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951). Gaur egungo euskarazko idazlerik garrantzitsuenak, ziurrenik. Hamabost eleberri inguru, zenbait poema bilduma eta saio eta irakurle gazteentzako hogeitun argitaratu ditu. Atxagak sari ugari jaso ditu: Donostiako Hiria (1979, 1983), Euskadi Literatur Saria (1989, 1991, 1996, 1997), Kritikaren Saria (1979, 1985, 1988, 1993), Haur eta gazte literaturako SM Saria (1995) eta Narratibako Sari Nazionala (1989). Haren eleberrien artean hauek nabarmendu behar ditugu: 'Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian' (1984, Erein), 'Obabakoak' (1988, Erein), 'Behi euskaldun baten memoriak' (1991, Pamiela), 'Soinujolearen semea' (2003, Pamiela) eta 'Zazpi etxe Frantzian' (2009, Pamiela). 2006az geroztik euskaltzain osoa da.

Kirmen Uribe (Ondarroa, 1970) indarrez sartu zen literatur munduan, 2001ean 'Bitartean heldu eskutik' poema bilduma argitaratu zuenean. Visor argitaletxeak 2003an edizio elebiduna atera zion, 'Mientras tanto dame la mano' izenburuarekin. Multimedia proiektuak egin ditu, poesia eta beste diziplina artistiko batzuk uztartuz. 2000. urtean Bar Puerto taularatu zuen. Proiektu honetan poesia, musika, bideoa eta ahozko istorioak batu zituen. 2003an 'Zaharregia, txikiegia agian' CD-liburua argitaratu zuen, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda musikariekin eta Mikel Valverde marrazkilariarekin, urte berean New Yorken egin zituzten errezitaldien fruitu. Egile honek gazteentzako zenbait eleberri labor ere idatzi ditu, adibidez, 'Ez naiz ilehoria, eta zer?' (Elkar, 2003) edo 'Garmendia eta zaldun beltza' (Elkar, 2003). 2008 Bilbao-New York-Bilbao (Elkar) eleberria laudatua plazaratu zuen; euskarazko Kritikaren Sari Nazionala eta Literaturako Sari Nazionala (narratiba) jaso zituen 2009.